



Leire Reina - Irati Tobalina - Maitane Espina

Aixerrota BHI, 14-15

# Aurkibidea

Iñigo Ibarguren	3
Sarrera	3
<i>Triangelu irristakorra</i>	
• Kokapena	4
• Gaia	4
• Argumentua	4
• Istorioa	5
• Pertsonaiak	6
• Egituraketa	7
• Baliabideak	7
Iritzia	8
Bibliografia	9
Webgrafia	9

# Iñigo Iburguren

---

Iñigo Iburguren 1979an jaio zen Azpeitian. Hiru liburu idatzi ditu *Triangelu irristakorra* den liburu hau idatzi baino lehen. Bere aurreko obrak *Malanjeko taupaden atzetik*, *Iraganaren pisua*, eta *Beethoven* izeneko biografia bat dira. Horretaz gain, tarteka, Uztarriako webgunean iritzi artikulua idatzen ditu.



## Sarrera

---

Iñigo Iburguren idazletzat duen 2013ko eleberri honek bi gizon eta emakume baten istorioak kontatzen ditu aldi berean. Alde batetik, familia-gizon bat dago: Kepa. Kepa bi alaba dituen gizon arrunt bat da, emazte eta lanpostu finko bat dituen. Bestetik, Alazne izeneko emakume bat azaltzen da. Honek, ile- apaindegi batean lan egiten du eta ez du gizon batekin erlazio seriorik izateko aukera handirik eduki. Azkenik, Beñat dago, bizitza bakarti eta lasai bat daraman gizona. Bizpahiru urte nagusiagoa den arreba bat dauka, lau seme-alaba dituen eta istorioan zehar paper garrantzitsu bat jokatuko duena. Hasieran, hiru pertsonai hauek ez dute elkar ezagutzen, baina istorioa aurrera doan heinean, hiruren bizitzak gurutzatuko dira, eta espero ez zuten bizitzaren barruan ikusiko dute haien burua.

# ***Triangelu irristakorra***

---

## ● Kokapena

Eleberri honek ez du kokatzen istorioa urte zehatz batean, baina gure egunetan gertatzen dela esan daiteke, egungo hizkera eta esapideak erabiltzen dituelako. Istorioa gertatzen den lekuari dagokionez, Bilbo aipatzen da bizpahiru aldiz; beraz, suposatuz dezakegu ekintzak han edo ingurutik gertatzen direla, hortaz, Euskal Herrian. Gainera, pertsonaiek gaztelaniaz hitz egiten dutenean italieraz markatzen da, eta gehienek euskaraz hitz egiten dutenez, Euskal Herrian gertatzen den istorioa dela esan daiteke ziurtasun osoz.

## ● Gaia

Beñat, Alazne eta Kepa: oso bizimodu desberdina daramaten pertsonen gertakariak, elkarren artean ezagutzera zuzenduko dituztenak.

Eleberri honek, uste baino gai gehiago tratatzen ditu istorioaren ildo nagusiaren atzetik, eta guzti horiek naturaltasun osoz jorratzen ditu: prostituzioa, indarkeria, migrazioa, gaur egungo nerabeen egoera, etab.

## ● Argumentua

Beñat, Alazne eta Keparen bizitzak korapilatu egiten dira. Alde batetik, Kepa emaztearekin eta bere bi alabekin bizi da; bestetik, Alazne, ile-apaindegi batean lan egiten eta bere burua galdua ikusten du; azkenik, Beñat, enpresa batean lan egiten eta maitasunean zorte handirik izan ez duena. Biziko dituzten gertakarien ondorioz, elkar ezagutu eta *Triangelu irristakor* bat osatuko dute.

## ● Istorioa

Kepa familia gizona da, Maite deituriko emazte bat dauka, eta Eider eta Libe deituriko bi alabatxo ere. Alaznek, aldiz, ile-apaindegi batean egiten du lan eta bizitza nekagarria darama. Gainera, maitasun kontuetan ez du zorte handirik izan eta nahiko bakarrik sentitzen da, Beñat bezala. Beñat gizon bakarti eta langilea da. Gizonak, 11 urte daramatza telefonia-enpresa batean lan egiten eta Aitziber deituriko arreba bat dauka.

Azken boladan, Kepa eta Maiteren erlazioa hozten ari dela dirudi, eta, gizona, zergatiaren atzetik dabil, emaitza onik lortu gabe. Gau batean, bere emazteak istripu bat sufritzen du eta Kepa ospitalera doa kezkatutik. Bertan, Maite ondo dagoela ziurtatu eta gero, Alazne ezagutzen du eta hizketan hasten dira. Haien artean zerbait pizten da eta egun batzuk beranduago, Kepak, emakumearen ile- apaindegira joatea erabakitzen du.

Beñaten eta Aitziberren arteko harremana galtzear zegoen, baina zorionez, nebak bisita egiten die arreba eta lau ilobei: Andoni, Ianire, Ander eta Aloña. Haien etxean zegoela, nahiko arraro ikusi zuen Aitziber eta etxean zegoen egoera nahiko bitxia iruditu zitzaion. Horrek arrebarekin zeukan harremana hobetzeko aukera ematen dio, arrebari zer gertatzen zaion jakin nahi du eta.

Kepa eta Alazne aste bat beranduago geratzen dira duela zazpi egun egon ziren taberna berean. Alaznek ostatu baten helbidea ematen dio gizonari eta bertako logela batean elkartzen dira. Han maitasun eta sexu kontuetan ibiliko dira.

Egunak aurrera joan ala, Beñatek susmo txarra hartzen dio arrebaren portaerari eta aitarekin hitz egiten zegoela, aitzak zerbait konfesatzen dio: Jonek, arrebaren senarrak, Aitziber jotzen du. Beñatek ezin du hori onartu eta arreba konbentzitzen du etxetik alde egiteko eta Joni salaketa bat jartzeko. Aitziber eta umeak aterpetxe batera eramaten ditu Beñatek. Bertan indarkeria jaso duten emakume jator batzuk bizi dira eta oso ondo moldatzen dira Aitziberrekin hasiera hasieratik.

Gau batean, Alazne lagun batekin diskoteka batera doa. Bertan, gizon bitxi bat ezagutzen du: Kepa. Erakargarria egiten zaio eta gizonak etxera gonbidatzen du. Aitziberrek beste zerbait espero badu ere, bat- batean, Kepa bere besoetan aurkitzen du negarrez. Emakumeak zer egin ez dakiela, gizona lasaitzen saiatzen da eta Kepak bere arazoa azaltzen dio.

Haserre daudela, Kepak Maiteri beste neska batekin oheratu dela esaten dio eta emazteak beste gizon bat ikusten bi urte daramatzala erantzuten dio. Honek, haien

erlazioarekin bukatzen du eta alabei esatea erabakitzen dute. Zaila egiten zaien arren, badakite familia osoarentzat egokiena dela eta Kepak ostatu batera bizitzera alde egiten du. Dena den, ez dauka alabak baztertzeko asmorik, Eider eta Libe baitira gauzarik garrantzitsuena bere bizitzan.

Etxera heltzear zegoela, norbaitek Beñat jo eta lurrean uzten du konorterik gabe. Biktima ospitalean esnatzen da eta Jon erreduntzat jotzen du. Bertan dagoela, Sandrak, aterpetxeko emakume bat, bisita egiten dio egunero eta neskaz maitemintzen hasten da. Egun gutxira, poliziak Jon atxilotzen du eta horrek zorientasuna itzultzen dio familia osoari. Egoeraren hobekuntzak Beñati eta Sandrari maitasun istorio bat hasteko aukera ematen die.

Alaznek Kepa deitzen du eta betiko tabernan geratzen dira. Emakumeak ez du jolasean ibiltzeko gogorik eta Keparen asmoak jakin nahi ditu. Baina Kepa itxaroten zegoela, zoriotsu izateko gizonen beharrik ez duela ohartzen da eta bere mutila heltzen denean, bukatu dela esaten dio.

## ● Pertsonaiak

Eleberri honek, esan bezala, hiru pertsonai nagusi ditu:

**Kepa.** 39 urte inguruko familia gizon bat da. Maiterekin ezkondata dago, eta bi alaba ditu: Eider, 7 urtekoa, eta Libe, 3 urte dituen. Nahiz eta bi ahizpekin erlazio hona izan, Liberekin harreman estuagoa dauka Eiderrekin baino, agian gazteagoa delako. Istorioan zehar, emaztearekin arazoak izango baditu ere, bere familia asko maite du eta edozein erabaki hartu aurretik, familian izango duen eraginean pentsatzen du. Gehienetan, bi edo hiru eguneko bizarra darama eta Alazneri oso erakargarriak egingo zaizkion esku handiak ditu.

**Alazne.** 39 urte dituen emakume bakarti bat da. Bizitzan zehar, ez du gizonekin harreman egonkorrik izan, baina ez du bakarrik bukatu nahi. Kepa eta Beñat ezagutuko ditu eta bi gizonetako bat aukeratzera behartuta ikusiko du bere burua. Keparen arabera, fisikoari dagokionez, izter sendoak, sabel mugikorra, lepo luzea eta bular txikiak ditu.

**Beñat.** 42 urteko gizon bat da, emakumeekin zorte handirik izan ez duena. Gizon langilea da, eta telefono-enpresa batean 11 urte daramatza lan egiten. Hasieran, bere arrebarekin daukan harremana ez da oso estua, baina istorioa aurrera doan heinean, laguntza eskainiko dio eta haien arteko harremana hobetu egingo da. Ilehoria da eta

begi argiak ditu. Planta onekoa da: altua eta arropa garestiak janzen ditu. Alazneren ustez, erakargarria da oso.

Dena den, istorioan, badira garrantzi handia duten beste pertsonaia batzuk ere, adibidez: Aitziber, Beñaten arreba, Maite, Keparen emaztea, eta Alazneren aita.

## ● Egituraketa

Eleberri honek, egitura lineal bat erabiltzen du, hau da, ez ditu iraganeko istorioak txertatzen, beti doa denboran aurrera. Idazleak hiru zati handitan banatu du nobela: lehenengo, *Triangeluaren ertzak*, bigarren, *Bidegurutzea*, eta hirugarren, *Nork bere bidea*. Hiru zatiak 28 kapitulutan daude banatuta eta horien bidez, hiru pertsonaien istorioak tartekatzen dira, Keparekin hasita eta Beñatekin amaituz. Azken kapituluetan, pertsonai bakoitzaren bukaerako egoera azaltzen du Iñigo Iburgurenak.

## ● Baliabideak

Prosazko lan bat da, narrazio eran agertzen dena. Ez da pertsonaien deskribapen zehatzik egiten, baina elkarrizketak aipagarriak dira, oso ugariak baitira nobelan zehar.

Istoria kontatzeko modua bitxia dela esan daiteke, hiru istorio desberdin bereizten direlako: Beñat, Kepa eta Alaznerena. Hiru protagonistak narratzaile pertsonaiak dira eta ondorioz, lehenengo pertsonan idatzita dago eleberri osoa. Adibidez, "buruan korapilo izugarria daukat".

Erabilitako hizkuntza euskara batua da eta hiztegia arrunta denez, erraza da ulertzeko.

Estiloaren aldetik, ez da figura literariorik agertzen, baina pertsonaien hausnarketa asko aurkitzen dira nobelan zehar. Horien bitartez, pertsonaien sentimenduak erakusten dira, adibidez: "Etorkizunak ekarriko du ekarri behar duena. Momentuz ez dut gehiago behar."

## ***Iritzia***

---

Iñigo Iburgurenek idatzitako nobela errealista hau oso berezia da. Istorioak bizimodu desberdina daramaten Kepa, Alazne eta Beñaten gertakariak kontatzen ditu, elkarren artean ezagutzera zuzenduko dituztenak. Eleberriaren izenburua oso garrantzitsua da nobela honetan, pare bat hitzetan nobelaren gai nagusia laburbiltzen duelako eta idazleak oso liburu erakargarria dela argitzen duelako. Ez hori bakarrik, beste hainbat gai interesagarri jorratzen ditu: prostituzioa, indarkeria, immigrazioa, gaur egungo nerabeen egoera, etab.

Nobela berean, hiru pertsona desberdinen bizitzak tartekatzen badira ere, erraz jarraitzen da istorioa. Alde batetik, gaien erakargarritasunaren eta gaurkotasunaren ondorioz, nobelak azkar harrapatzen duelako irakurlea. Bestetik, hiztegia nahiko arrunta delako eta horrenbestez, ez du irakurtzerako orduan ulertzeko arazorik suposatzen. Gehienetan, euskara batuan aritzen dira pertsonaiak baina tarteka, gaztelania ere erabiltzen dute, kanpotarrekin hitz egitean.

Egitura txukun eta zehatza dauka liburuak. Kapituluetan zatituta dago eta bakoitzaren lehen orriaren goialdean, kapituluaren protagonistaren izena agertzen da. Horrek nobela hobeto antolatzeke eta ulertzeko aukera ematen du, eta irakurlea ez galtzea ahalbidetzen du.

Idazleak gaur egungo Euskal Herrian kokatzen ditu hiru istorioak. Gaurkotasunak eta tokiarekiko hurbiltasunak erraz barneratzen dute irakurlea nobelan, hainbat leku edo egoerarekin identifika daitekeelako. Esate baterako, Bilbo aipatzen du bizpahiru aldiz.

Nobela honek benetako errealitatea erakusten digu. Ez du paregabeko amaiera duen betiko istorioa kontatzen, amaiera mingots bat duena baizik. Alazneren egoera, gure inguruko hainbat emakumeen egoeraren antzekoa da, bakarrik amaitzeko beldurra daukatena. Baina azkenean, zoriotsu izateko gizonen beharrik ez duela ohartzen da. Honen bidez, nobelak bizitzan bakarrik egotea gogorra izan daitekeela adierazten du, baina ez ezinezkoa. Zoriontasuna norberak aurkitu behar duela bere buruan eta ez besteengan.

Eleberri honen atal guztiak aztertu ondoren, liburu bikaina eta interesgarria dela ondoriozta daiteke, irakurtzea benetan merezi duena eta oso gomendagarria dena.



## **Bibliografia**

---

*Triangelu irristakorra*, Iñigo Ibarguren, Gaumin.

## **Webgrafia**

---

<http://www.gaumin.com/inigo.html>

[http://www.gaumin.com/denda/product\\_info.php?cPath=25\\_40&products\\_id=78&language=es](http://www.gaumin.com/denda/product_info.php?cPath=25_40&products_id=78&language=es)

<http://www.diariovasco.com/v/20130622/cultura/inigo-ibargurenen-hirugarren-nobela-20130622.html>

<http://www.kulturklik.euskadi.net/lang/es/triangelu-irristakorra-ibarguren-inigo/>  
<http://www.gaztezulo.com/kritikak/liburuak/triangelu-irristakorra>

<http://www.hiztegia.net>